

# auzo • auzo • auzo • auzo • auzo

## altza eta herrera

**Roteta** Kirol Elkartek prestatu ditu datorren denboraldirako futbol talde berriak. Aldaketa handirik izango ez bada ere, 96-97 denboraldian Erregionaleko bigarren mailan jokatzeko Sporting futbol taldetik ateratako jokalariekin talde berri bat sortu nahi da. Ekipo berri honen arduradun lanetan Aitor Galdos gaztea arituko da. Honekin batera, Roteta Kirol Elkartek bi futbol talde gehiago izango ditu denboraldi honetan.

**Estibaus** boletinaren bigarren zenbakia kaleratu da. Boletin berri honen edukien artean sinadura ezagunak



**Larratxo eta Txirrita pasealekuan** norabide bakarra izango du trafikoak. Hainbat kale oinezkoentzat egokituko dira eta semaforo gehiago jarriko dira. **Aspaldiko arazoa da trafikoarena gure auzoan. Azkenik, aste honetan udal gobernuak aldaketei ekitea erabaki du, Leber enpresak egindako proposamenaren arabera.**

topa daitezke. Besteak beste, Hilari Pagazartunduak eginiko artikulua azpimarra genezake, Altzako elkarte mugimenduen analisi interesagarria egiten du bertan. Estrelli de la Cruz, Angel

Maria Calvo, José Manuel Gabaran, Cristina Extremo eta Juan Carlos Morak hartzen dute parte oraingo honetan.

Altzako Historia Mintegiak eskaintzen duen aukera

honetan parte hartu nahi baduzu idatz ezazu helbide honetara: Altzako Historia Mintegia, Lau-Haizeta, 21-3. Ezk. 20.017 Donostia.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

**BE BOP club**  
 Uztailaren 25ean, *Matt Darriau's Paradox Trio*  
 Uztailaren 26an, *Iñaki Salvador Trio*  
 Uztailaren 27an, *Lily White Band*  
 Uztailaren 28ean, *Lau Behi*

**ALTXERRI club**  
 Uztailaren 25ean, *Chano Romínguez Trio*  
 Uztailaren 26an, *David Murray-Aki Takase Duo*  
 Uztailaren 27an, *Lau Behi*  
 Uztailaren 28an, *Lily White Band*